



Entidad Pública Empresarial de Vivienda - Donostiako Etxegintza

Mandasko Dukearen Pasealekua, 12-behea / Paseo del Duque de Mandas, 12-bajo
Tel. 943481699 - 943481040 - 943481751 - Faxe 943 32 79 20
20012 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

Jabearentzako abantailak

- Erakundeak programaren barruan jabeari eskaintzen dizkion zerbitzu guztiak doakoak dira.
- Erakundeak aukeratzen du zuzenean maizterra, ALOKABIDE programako etxebizitza-eskatzaileren erregistroan izena emanda daudenen artetik. Horretarako behar adina kudeaketa eta etxebizitzarako bisita egingo dituzte, interesatuta dagoen errentari bat aurkitu arte.
- Maizterra hautatu ondoren, alokairu-kontratua sinatzeko beharrezko dokumentazio guztia harekin kudeatuko du.
- Erakundeak ordaintzen duen errenta-aseguru bat eskaintzen zaio, maizterrak errenta ez ordaintzearen arriskua estaltzeko kontratuak irauten duen bitartean.
- Erakundeak ordaintzen duen etxebizitzaren arrisku anitzeko aseguruia eskaintzen da, edukitzailea 50.000 €-koa eta edukia 10.000 €-koa izanik.
- Legeak ezartzen dituen eskakizun guztiak biltzen dituen alokairu-kontratua aurkezten die sinatzaileei.
- Kontratua gure bulegoetan sinatuko da, alderdi guztiei horri buruzko informazio guztia eskainiz eta sor daitezkeen zalantzak argituz.
- Dagozkion aseguruak izapidetzen dira.
- Udal-programa bat denez gero, uraren eta zaborraren ordainagiriak maizterraren izenean jar daitezke, eta kudeaketa hori Erakundeak egiten du.
- Kontratuak irauten duen bitartean, kontratuan parte hartzen duten alderdi guztiek izan ditzaketen zalantza juridikoak argituko dira. Gerta daitezkeen edozein gorabeherari dagokionez, lehen instantzian Erakundeak kudeatuko du, alderdien artean beharrezkoak ez diren eragozpenak edo gatazkak saihestuz eta horien arteko ezadostasunak konpontzen saiatuz, Erakundeak bitartekari gisa jardunez.
- Maizterrak etxebizitza utziko duen unean, Erakundeko langileek etxebizitzara bisita egiten dute haren egoera egiaztatzeko eta, hala dagokionean, aurkitu diren akatsak edo kalteak konpon daitezkeen eskatzeko, eta hornidurei dagokienez ordainketaren bat egin gabe dagoen egiaztatzeko, fidantzaren itzulketa kudeatuz.
- % 25eko hobaria izango du Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan, dagokion ordenantza fiskalean hori adierazten bada, eta Erakundeak izapidetuko du eskaera hori.

